



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

Gutxienezko zerbitzuak ez ziren guztiz bete

Istiluen ondorioz lau pertsona atxilotu zituzten eta bat zauritu

Gasteizko Gobernuak atzoko grebarako dekretuz erabakitako gutxienezko zerbitzuak bete egin zituzten langileek babes zibila eta osasun zentruetan, baina garraioan nahiko irregularrak izan ziren eta kasu batzuetan piketeek oztopatu egin zituzten. Zenbait istilu izan ziren pikete hauen eta poliziaren artean, hiru atxilotu eta zauritu baten emaitzaz.

J.A. / BILBO

Eusko Jaurlaritzak agindutako gutxienezko zerbitzuak ospitaleetan, osasun zentruetan eta babes zibilean soilik bete ziren normaltasunez Euskal Autonomi Elkartean atzoko grebaldian.

Garriotan zerbitzu horiek Gasteiz eta Donostian ozta-ozta bete ziren eta batzuetan Poliziaren laguntza ere behar izan bait zen autobusak ibil zitezen. Bilbon ia ez zen garraiorik izan. Renfe eta Eusko Trenbideak konpainietako zerbitzuak oztopaturik egon ziren, piketeek trenbidean ipinitako barrikadekin.

Eusko Trenbideak-ek jakin erazi zuenez, piketeek trenbide zein autobus zerbitzuak oztopatu zituzten eta horren ondorioz Bilbo-Sondika-Lezama, Bilbo-Durango, Bilbo-Bermeo trenbideak eta Bilbo Eskuinaldeko zein Zumaia-Zumarraga autobusek ezin izan zuten gutxienezko garraio zerbitzurik bete. Donostia eta Hendaia bitarteko 'topoa', ordea, normal ibili zen.

Hiri garraio konpainien aurkako ekintzez gainera, piketeek bideak eten zituzten hiri batzuetan, eta zenbaitetan suzko barrikadak ezarri, nahiz eta hauen ondorioz istilurik ez gertatu.

Eusko Trenbideak-ek bi sute-eren berri eman zuen. Lehena Lamiakoko (Bilbo) geltokian gertatutakoa eta bigarrena Deban,



Saltoki askok itxi behar izan zuten langileen piketeen eraginez.

X. SIMAL/OLALDE

✓ Hego Euskal Herriko hiriburu eta herrietako zenbait saltoki zabalik egon ziren goizeko lehen orduetan baina piketeen eraginez itxi behar izan zuten.

nahiz eta azken hau azkenean istripuz gertatu zela jakin.

ISTILU ARINAK ETA ATXILOKETAK

Istiluei dago-kienez, Bilbon, Gasteiz, Iruñea eta Errenterian izan zirenen berri jaso zuen egunkari honek. Gatazka larririk ez zen gertatu, baina horien ondorioz langile bat zauritua izan zen eta beste lau atxilotu egin zituen Poliziak. Ordu batzuk beranduago libre utzi zituzten berriro.

Hego Euskal Herriko hiriburu eta herrietako zenbait saltoki eta denda zabalik egon ziren goizeko lehen orduetan, baina piketeen ihardueraren eraginez itxi behar izan ziren.

Pikete hauek osatzen zituzten langileen eta polizien artean gertatuz ziren istiluak, gehienbat.

Gasteizen, UST sindikatuko bi kide atxilotu zituen Poliziak eta ondorioz enfrontamenduak areagotu egin ziren. Bilbon, berriz, Corte Ingles saltoki handiaren atarian izan ziren iskanbilak eta piketeko kide bat «Poliziari erasotzeagatik» atxilotu zuten, Bizkaiko Gobernu Zibilak esan zuenez. Iruñean, Poliziak hama-sei urteko gazte bat atxilotu zuen, merkatari bat denda ixtera behartzeagatik, Nafarroako Gobernuaren arabera.



Ertzainak kontzentratuei gasa botatzen Bizkaiko Haziendan. X. SIMAL

**AIZARNAZABALGO****UDALA****IRAGARKIA**

1992ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udal Batzarreak 1992ko apirilaren 14eko Pleno Berezian, erabaki hauek hartu zituela argitaratzen da, bere baldintza eta guzti:

- 1.- Aizarnazabalgo SI-1 Sektore Industrialaren Aktuazio Oinarri eta Estatutoen Proiektuari Behin Betiko Onarpena.
- 2.- Aizarnazabalgo SI-1 Sektore Industrialaren Hirigintz Proiektuari Behin Betiko Onarpena.

Aizarnazabal, 1992ko maiatzaren 21ean
ALKATESA

**ARRASATEKO UDALA****IRAGARKIA**

Arrasateko Udal Plenoak 1992ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

Hogeitamar eguneko epeaz (iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita) jende aurrera ateratzea Udalerriko hirigintz planeamendua Epele-Kanpazar zatian San Prudentziotik Elorriorako errepide berriaren proiektuaren aurrikuspenera egokitze-ko, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko dokumentua, korporazio, erakunde eta partikularrek iradokizunak egin ahal dituzaten, eta kasu balitz, planeamenduko beste alternatiba batzuk.

Arrasate, 1992ko maiatzaren 25ean
ALKATEA

**MAIZPIDE
euskaltegia**

LAZKAO (GIPUZKOA) Tel.: (943) 88 92 31/32

U D A K O**EUSKAL IKASTAROAK**MAILA GUZTIAK, SAKONTZE ETA
ALFABETATZE TEKNIKOA BARNE**ESKATU INFORMAZIO GEHIAGO!**